

Batzuk diote Freud-ek gehiegizko garrantzia eman ziola sexualitateari, baina, bere ustez, sexualitateak energia handia zuen, erreprimitua baitzegoen. Hala ere, Freud-ek bere teoria gainezartzeko indar handia egin behar izan zuen, ez baitzen batere erraza aurreko korranteak zapaltzea.

Freud-ek azaldutako garapenaren faseen iraupena aldakorra izango da, iraupen hori pertsonen arabera izango baita. **Garapen libidinosoa = Garapen psikosexuala.**

### **1:FASE ORALA:** (Jaiotzetik 1,5 urtera arte)

Fase honen iturri pulstionalak (*pulsion: impulso biologiko instintivo necesario para la supervivencia*) edo asetze iturriak ahoa eta azala izango dira, hau da, pulstioaren satisfazioa ematen duten iturriak. Izan ere, haurrak leku hauetan izango du garai horretan bere zentro sexuala eta leku hauen bidez areagotzen da bere gozamina, ahotik ematen baitiogu jaten eta laztanak egiten baitizkiogu larruazalean.

Zentzu honetan, elikatua izateak maitatua izatea dakar. Satisfazioa ahotik eta azaletik lortzen denez, era horretan jasotzen ditu haurrak muduarekiko bere lehenengo sentsazioak. Garai honetan, haurra guztiz berekoa izango da soilik deseroso dagoenean esnatuko da, nahi duena lortu ahal izateko (gosea badu janaria eskatzeko negar egingo du, ...).

Fase oralean haurrak esponja modukoak izango dira, dena xurgatuko baitute eta horregatik, fase honetan izan duen gozamenaren arabera, fase honek utzitako oroitzapenaren inpronta handiagoa edo txikiagoa izango da. Hau da, gozamina handia izan bada, aztarnak geratuko zaizkio eta heldua denean fase honetako gertaeraren bat errepikatuko du lasaitasun edo gozamen bera lortzeko. Adib: atzamarra ahoan sartzea gustatzen bazitzaion, helduagoa denean boligrafoak sartuko eramango ditu ahora eta aurrerago zigarroak, ... Drogazaletasuna, alkoholismoa, ... fase honekin harremanetan daudela esaten da.

Fase oralaren amaieran, *bera bakarrik* izatetik, *nia* eratzen ere hasten da.

### **2: FASE ANALA:** (1-3 urte)

Fase honen une garrantzitsuena 2 urteren inguruan ematen da. Uzkiak garrantzi handia hartzen du garai honetan, esfinterraren kontrolak batez ere. Izan ere, haurra konsziente izaten hasiko da eta benetako errealitatearekin kontaktuan jarriko da, hala nola, eskolara joateko goiz jaiki beharko du. Era honetan, bere heziketari hasiera emango zaio.

Hala ere, anibalentzia handiko fasea izango da honako hau, haurrak ez baitu argi izango zer den ona eta zer txarra. Horregatik izango da garrantzitsua eta beharrezkoa gurasoen heziketa. Gurasoak arau sozio-kulturalaren adierazle dira eta haurraren anibalentzia hori argitzen edo desagertarazten saiatuko dira. Gurasoen heziketak ez du oso permisiboa izan behar, baina, ezta oso zorrotza ere, horrela haurra bere boterea era egoki batean gainezartzeko gai izango baita. Adib: haurrari zer egin nahi duen galdetzen badiote, bere nahia adierazteko gai izan beharko da, baina, ezer inposatu gabe.

Bestalde, garai honetan, haurra hitz egiten, ibiltzen, zutik jartzen, ... hasiko da eta horrek askatasuna eta autonomia emango diote, erabakiak hartu beharko baititu, zer, noiz eta nola egin. Iada ez ditu nahi dituen gauzak nahi dituen momentu berean lortuko, gauzek bere ordua eta arauak dituztela konturatuko

da: bazkaldu eguerdian egiten dela, lo bazkaldu ondoren egingo duela, arratsaldean askaria jan beharko duela, ... Esan dezakegu *superniaren*, *beraren* eta *niaren* arteko oreka sortzen hasten dela. Izan ere, fase honetan hasten da *supernia* eratzen. Adibideak:

-Haurrak kaka egin behar du goizean, gosalduta ostean. Haurrak kaka bakarrik egiten badu, ama edo aita oso pozik jarriko da eta haurrak, poztasun horretaz jabeturik, ondo egin duela konturatuko da eta beraz, ikasi egingo du.

-Arratsaldean, askariaren ondoren haurrak kaka egin behar duela jakin arren, haurrak komonera joan nahi ez duenez, amak erosketak egitera joatea erabakiko du. Dendan daudenean, haurrak amari kaka egiteko eskatuko dio, baina, orduan, amak esango dio ezin duela momentu horretan kakarik egin, lehenago egin behar zuela. Beraz, ikusten da haurraren arau hauste batek (askari ondoren kaka egin ez izanak) ondorio bat dakarrela. Haurra horretaz ere jabetuko da eta ikasi egingo du.

Bestalde, fase anlean, elikagai solidoak jaten hasten da eta gainera, haurrari bakarrik jatea gustatzen zaio. Baina zikindu egiten da. Une honetan, heziketa motak garrantzia izango du:

-Gurasoek bakarrik jaten eta zikintzen uzten badiote, haurrak pixkanaka hori zuzentzen ikasiko du eta azkenean ez da zikinduko. Berak bakarrik ikasiko duenez, autonomia garatuko du.

-Gurasoek, haurra ez zikintzeko, bakarrik jaten uzten ez badiote, ez du ondo jaten ikasiko eta beraz, ez du autonomiarik garatuko.

Hala ere, garai honetan haurrari zikintzea izugarri gustatzen zaion arren, haurrari esan behar zaio zikintzen bada ondoren garbitu egin beharko duela. Orokorrean, zikinkeriaren aurrean 2 erreakzio ager daitezke:

-Zikinkeriarekiko gehiegizko joera.

-Garbitasunarekiko gehiegizko joera.

Esan dugu, garai honetan ere, haurra hitz egiten hasten dela. Hizkuntzak haurraren beste tratamendu bat eskatuko du, gaitasun berri horrek haurrari EZETZ esateko aukera emango baitio. Horregatik, fase honen ezaugarri garrantzitsu bat izango da haurrak gurasoekiko hartzen duten jarrera: baliteke kontra egitea edo baliteke menpekoa izatea (gurasoek esandakoari baietza ematea etengabe). Jarrera horretan garrantzia izango du gurasoek haurrari emandako heziketak.

### **3: FASE FALIKOA:** (4-7 urte)

Sexu bien arteko ezberdintasunaz jabetzen hasten dira haurrak, neska neska dela eta mutila mutila dela. Hau horrela izanik, sexu batekoak beste sexukoak ezaugarriek interesatzen hasten dira.

Eredu klasikoan, halabeharrez, mutiletan aztertu izan da fase hau, beraiek soilik baitute zakila. Mutilek garai honetan, zakilari izugarritzko garrantzia ematen diote: tamainari, txisa noraino egiten duten konparatzeari, ... Honek LEHIAKORTASUNA dakar, hau izanik fase honen ezaugarri nagusia.

### **4: FASE EDIPIKOA:** (5-6 urte)

Fase hau fase falikoaren ataltzat ere kontsidera daiteke, haurra bere sexuaz kontziente izatearen ondorio bezala ikus baitaiteke. Fase edipikoari FASE TRIANGELUARRA ere deitzen zaio, triangelu horren hiru

erpinak aita, ama eta haurra izanik. Behin haurrak bere sexualitatea onartu duenean, normalean alaba aitarekin maitemintzen da ama etsaitzat hartuz eta semea berriz, alderantziz. Adibidea:

-Haurra neska izanik (alaba): Alabak hasiera batean aitarekin maitemindu eta ama etsai bezala ikusiko du. Hala ere, ama etsai boteretsuegia dela konturaturik, eta erditik kendu ezin duela oharturik, denborarekin ama imitatzen hasiko da, amarekin identifikatzen.

Beraz, ikusten da alabek aspektu femeninoak eskuratzen dituztela. Gauza bera gertatzen da mutilekin (semeekin), hauek aspektu maskulinoak eskuratzen dituztelarik, etsaia zen aita erditik kendu ezin dutela konturatzean.

### **5: LATENTZIA FASEA:** (7-11 urte)

Dagoeneko, adin honekin, haurra lehen hezkuntzan dago: etxeko lanak izango ditu, eskola kiroletan parte hartuko du, ... Garai honetan, sexualitatea ahaztua dute, ezkutaturik nolabait esateko, eta beraz, mutilak mutilekin ibiliko dira eta neskak neskekin, norberak bere zereginak izango dituelarik. Horregatik dugu fase latentea sexualitateaz hitz egiteko une egokiena, pultsio edo instintu hori lotan, ausente edo pasibo dagoelako.

### **6: NERABEZAROA:** (11-? urte)

Lotan egondakoa (sexualitatea, asetzeko nahia, ...) esnatu egiten da. Dena da sexualitatea. Berpizte libidinosoa gertatzen da: mutilak neskekin eta neskak mutilekin ibiltzen hasten dira. Baina garai honetako sexualitatea genitalizatuagoa dago eta Freud-en arabera, sexualitate genitalizatu hau izango da hemendik aurrera bizitzan zehar mantenduko dena. Garai honetan, garrantzi handia ematen diegu harremanei eta gainera, bikotearen ikuspuntu ideala dugu.